

KONTROL MOZIOA

Hiri-hondakinen kudeaketari buruzkoa

Garbiñe Alkiza Lopez de Samaniego EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du, Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2020ko uztailaren 13an Gune Publikoetako Batzordean aurkeztutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Gipuzkoak Foru Aldundiaren azken datuen arabera, Gipuzkoan 138.000 tona errefus jaso ziren 2019an; hauetatik % 80 birziklagarri (110.000 tona). Beraz, benetako errefus kopurua 28.000 tona izan da. Donostian ere errefus-poltsetan doanaren % 80 birziklagarria izaten da. Ondorioz, argi dago, donostiarrak kontzientziatu, prestatu eta orientatu egin behar direla, etxean hondakinak hobeto bereizi eta askoz gehiago birzikla dezagun.

Herritarrek gehien sortzen dugun hondakina organikoa da, eta bereizirik biltzea garrantzitsua da, kantitate handiak sortzen ditugulako eta beste hondakin-frakzio batzuekin nahasteak izugarri zailtzen duelako bereizketa hori.

Donostian datuak ez dira batere onak: 2019an % 42koa izan da gaikako bilketa. Beste hiri batzuekin alderatuta, kopuru txikia kontsideratu daitekeena. Errefusaren edukiontzian 54.000 tona hondakin bildu dira, Gipuzkoa osoko % 40. Hau da, Gipuzkoan sortutako errefusaren ia erdia Donostian sortu zen, Gipuzkoako biztanleen laurdena baino ez duenean. Errefusaren edukiontzian pertsonako 288 kilo bildu ziren, Gipuzkoan batez bestekoa 186 kilo denean. Datu orokorrak hartuta, biztanleko eta urteko, batez beste, 100 kilo organiko botatzen ari da pertsona bakoitza errefusaren edukiontzira, eta hori ez da iraunkorra. Bestalde, pandemia garaian, 31 kilo organiko bildu dira pertsonako Donostian. Gipuzkoako batez bestekoa 77 kilokoa izan denean (sortutakoaren % 47 soilik).

Donostiako Udal Gobernuak ez du, azken urteotan, ezer ere egin gaikako bilketa sistema hobetzeko. Hainbestetan aipatutako txipa ez zaio errefusaren edukiontzari aplikatu. Eta

EH Bildu talde politikoa

Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - 20003 Donostia
Tel. 943481027 eh_bildu@donostia.eus-- www.donostia.ehbildu.eus -

beste hiri batzuetan ikusitako adibide errealekin (Orereta, Zarautz, Azpeitia, Andoain, Zumarraga...) hori egin denean gaikako bilketan emaitzak hobetu egin dira.

Datu hauek guztiak oso arduragarri iruditzen zaizkigu, zailtasunak identifikatu baitira hondakinak murrizteko eta gaikako kudeaketa egoki bat egiteko, eta horri buruz interpelatu genuen batzordean zinegotzi arduraduna. Bertan jasotako erantzunaren arabera, gaikako bilketa hobetu egin behar da eta horretarako neurriak jarri. Orain arte horretan aritu izan direla ere aipatu zigun eta bide beretik jarraituko dutela. Baina Udal Gobernu honek, birziklapen tasa igotzeko neurriei dagokienez, propaganda besterik ez du egin. Beraz, neurriak hartzeko unea iritsi dela uste dugu.

Larrialdi klimatikoa deklaraturata dugun honetan, ezin da ulertu birziklapenaren aldeko hautu firme bat ez hartzea eta Lur planeta orain arte bezala kutsatzen jarraitzea.

Horiek horrela, honako hau da behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako **KONTROL MOZIOA**:

1. Donostiako Udalbatzak hertsiki eskatzen dio Udal Gobernuari Donostiako gaikako bilketaren portzentaia igo dadin, errefus-educiontzia txip-dunaren ezarpenarekin has dadila auzoz auzo 2020. urtean.
2. Donostiako Udalbatzak hertsiki eskatzen dio Udal Gobernuari errefus-educiontzia txip-dunaren ezarpenari buruzko kronograma bat egin dezala eta udal taldeei aurkez diezaiela.

Donostian, 2020ko uztailaren 16an

Garbiñe Alkiza Lopez de Samaniego
EH BILDU udal taldeko zinegotzia